

Kontseilu Akademikoaren 1/2011 Erabakia, martxoaren 24koa, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak araututako Graduko titulazioetan kredituak aitortzeko eta transferitzeko Arau Akademiko Bereziak onartu zituen martxoaren 25eko 1/2010 Erabakia aldatzen duena, uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuak arlo honetan ezarritako aukera berriak kontuan hartuta (Errektorearen martxoaren 25eko Aginduaren bidez aldarrikatua)

Zioen azalpena

Uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuak aukera berriak ezarri ditu 1393/2007 Errege Dekretuak araututako unibertsitateko irakaskuntza ofizialetan kredituak aitortzeko, eta aukera berri horiek aintzat hartu behar dira gure unibertsitateko graduko ikasketen araudian.

Horretarako, aldaketak egin behar dira Graduko titulazioetan kredituak aitortzeko eta transferitzeko Arau Akademiko Bereziak onartu zituen Kontseilu Akademikoaren martxoaren 25eko 1/2010 Erabakiaren zenbait artikulutan.

Bestalde, graduko ikasketen ezarpenean izandako esperientziak artikulatu batzuk zuzendu, beste batzuk zabaldu eta beste batzuk ordezkatu beharra ekarri du.

Hori dela eta, beharrezko izapideak beteta, Ikasketen Antolamenduko errektoreordeak proposatuta, Zuzendaritza Kontseiluaren aldeko irizpena eta Kontseilu Akademikoaren onspena hartuta, honako hau XEDATU DA:

1. 2. artikulua. Definizioa, honela geratu da

861/2010 Errege Dekretuak moldatutako 1393/2007 Errege Dekretuaren 6.2 artikuluan ezarri denez, aitortpena zera da: DUK ikasleak Deustuko Unibertsitatean edo beste unibertsitatearen batean hasitako zein amaitutako unibertsitate-ikasketa ofizialetan zein ez-ofizialetan edo goi mailako beste ikasketa ofizial batzuetan lortutako kredituak onartzea eta aintzat hartzea sartzen den ikasketetako titulua lortzeko.

Era berean, lan edo lanbide esperientzia ere aitortu ahal izango da kredituen bidez, eta kreditu horiek ere hartuko dira aintzat graduko titulua lortzeko, baldin eta esperientzia hori behar bezala egiaztatuta badago eta tituluari dagozkion gaitasunekin zerikusia badu.

2. 3. artikulua. Aitorpenaren ondorioak, honela geratu da

1. Aitorpenaren ondorioz, xede titulazioa lortzeko egin eta gainditu beharreko kreditu kopurua aitortutako kreditu kopurua adina gutxitu beharko da, baldin eta aitortutako kreditu kopuru horrek aitortutako irakasgaiei dagozkien kreditu guztiak estaltzen baditu.
2. Aitorpenaren ebazpenean zehatz-mehatz agertuko da zenbat ECTS kreditu eta zein motatakoak aitortu zaizkion ikasleari eta zein irakasgai ez dituen egin beharko, dela haiei dagozkien gaitasunak eta ezaupideak gaindituak dituela egiaztatu duelako, dela oinarrizko prestakuntzako gaietako kredituak aitortu zaizkiolako 1393/2007 Errege Dekretuaren 13. artikulua aplikatuta, 861/2010 Errege Dekretuak xedatutako moduan.

3. Sarrera prozesuko aitorten ebazpenek dagokien ikasturtean izango dute eragina, irakaskuntzen plangintzaren arabera, aitortutako irakasgaiak ematen diren mailako matrikula egitean, alegia.
4. Aitortutako irakasgaiak halakotzat agertuko dira ikaslearen espedientearen, eta araudi honetan ezarritakoa aplikatuz dagokien kalifikazioa izango dute, beharrezkoa bada, eta halaxe agertuko dira Tituluaren Europar Gehigarrian ere.

3. 4. artikulua. Aitorpenerako irizpide orokorrak, honela geratu da

1. Aitorpena xede irakasgaiarekin lotutako gaitasunak eta ezaupideak egiaztatzean oinarritzen da, menderatze maila eta kreditu kopurua kontuan hartuta. Jatorrizko eta xede irakasgaien enuntziatua, edukiak eta zabalera antzekoak izatea ez da nahikoa irakasgaia aitortzeko.
2. Aitorpenaren jatorria honakoa izango da: unibertsitateko ikasketa ofizialetan zein ez ofizialetan edo goi mailako bestelako ikasketa ofizialetan gainditutako irakasgaiak edo kredituak edo/eta lan edo lanbide esperientzia egiaztatua. Gradua unibertsitateko ikasketen lehen zikloa denez gero, unibertsitateko ikasketa ofizialetako irakasgaiak aitortu egin daitezke, baita ikasketa horiek eginda lortutako titulua graduko ikasketetarako sarbidea ematen duena bada ere.
3. Aitorpenaren xede unitatea irakasgaia izango da eta, bestela, irakasgaiaren gaiari eta/edo moduluari dagozkion kredituak pilatuko dira.
4. Irakasgaiaren bat aitortuz gero unibertsitateko ikasketa ofizialetan lortutako kredituak direla eta, irakasgai horren kalifikazioa aitorpenaren jatorri den gaiaren edo irakasgaiaren lortutako kalifikazioaren parekoa izango da. Lehenagoko ikasketetan egindako gai edo irakasgai batzuen ondorioz, xede titulazioko irakasgai bat, edo batzuk, aitortuz gero, batez besteko ponderatua aterako da, kredituak kontuan hartuta.
5. Aitorpen eskabidearekin batera ikasleak aurkeztutako ziurtagirian, jatorrizko gaiak edo irakasgaiak hitzezko kalifikazioa bakarrik badu, kalifikazio horri dagokion zenbakizko kalifikazio estandarra esleituko zaio, Unibertsitate honetako kalifikazio arauak aplikatuz.
6. Lan edo lanbide esperientzia edo unibertsitateko ikasketa ez ofizialak kontuan hartuta, irakasgaiaren bat aitortuz gero, irakasgai horrek ez du kalifikaziorik izango eta, ondorioz, dagozkion kredituak ez dira zenbatuko espedientearen baremaziorako. [lehengo 6. puntuaren ordekoa]
7. Atzerriko unibertsitate ikasketak aitortu ahal izateko, ikasketa horien ofizialtasuna egiaztatu beharko da edo, bestela, ikasketak egindako unibertsitatearen edo goi mailako hezkuntzako erakundearen izaera ofiziala.
8. Beste unibertsitate batzuekin izenpetutako mugikortasuneko edo baterako prestakuntzako hitzarmenen ondorioz ematen diren ikasketetan, aitorten kontuetarako, hitzarmen horietan ezarritakoa beteko da, non eta ez duen araudi honen xedapenen bat urratzen edo ez doan 1393/2007 Errege Dekretuan

ezarritako jarraibideen kontra. Hortaz, mugikortasun programetan egindako kredituen aitortpena graduko tituluaren aldean aurretik sinatutako hitzarmenaren arabera egingo da.

9. Ikasleek egin eta gainditutako kredituak behin baino gehiagotan erabili ahal izango dira beste titulazio batzuetako irakasgaiak aitortzeko; baina ikaslearen espedientean "aitortu" gisa ageri direnak, hau da, titulazio horretan aitortu zaizkionak baina egin ez dituenak, ezin izango dira erabili beste aitortpenik egiteko, ezta "baliozkotuak" eta "egokituak" ere, arrazoi beragatik.

10. Lan edo lanbide esperientzia edo unibertsitateko ikasketa ez ofizialak kontuan hartuta aitortutako kreditu kopurua ezin izango da, oro har, ikasketa plana osatzen duen kreditu kopuruaren %15 baino handiagoa izan. [lehenengo 10. puntuaren ordezkia]

11. Hala ere, ikasleak egingo dituen graduko ikasketek lehenago egindako ikasketa ez ofizialak ordezkatzeko badituzte, kreditu kopuru handiagoa izan daiteke aitortua, beti ere egiaztapen txostenean ezarritakoa goitik behera betez.
12. Titulazio batean aitortutako kredituen kopurua ezin izango da titulua lortzeko eskatzen den kreditu kopuruaren %75 baino handiagoa izan. Salbuespen izango dira titulua egiaztatze txostenean ageri diren egokitzapen taulak aplikatuta gertatzen diren egoerak.
13. Lanbide arautuetan jarduteko gaitzen duten titulu ofizialetan, hau da, gobernuek titulu horien ikasketa planen baldintza batzuk ezarri dizkienean, automatikoki aitortuko dira arauaren definitutako modulu eta gaien kredituak. Modulu edo gai bat osorik gainditu ez bada, aitortpena, gaika edo irakasgaika egingo da, kasuaren arabera, haiei espresuki lotutako gaitasunak eta ezaupideak kontuan hartuta.

4. 5. artikulua. Aitortpenerako irizpide zehatzak, honela geratu da

1. Graduko tituluaren oinarriko gaietakoak diren irakasgaien aitortpena, 1393/2007 Errege Dekretuaren 13. artikulua betez, 861/2010 Errege Dekretuan ezarritako moduan, irizpide hauen arabera egingo da:
 - a) Ikasleak egingo duen titulua jakintza adar berekoa izanez gero, adar horretako oinarriko prestakuntzako gaien dagozkien 36 kreditu aitortuko dira gutxienez.
 - b) Era berean, ikasleak egingo duen titularen jakintza adarrekoak diren oinarriko prestakuntzako beste gai batzuetan lortutako kredituak ere aitortu ahal izango dira.
 - c) Aurreko bi letretan aurreikusita ez dauden kasuetan, oinarriko prestakuntzako irakasgaiak aitortu ahal izango dira araudi honetan aitortpenerako ezarritako irizpide orokorren arabera. [lehenengo c letraren ordezkia].
2. Nahitaetzeko eta hautazko irakasgaiak aitortu ahal izango dira, baldin eta ikasleak antzeko mailako ikasketetan edo gaietan edo lan edo lanbide esperientzia egiaztatzen lortutako gaitasunak eta ezaupideak eta egin nahi duen titulazioko

irakasgaietan lortu beharrekoak parekoak badira edo haien zeharkakotasuna kontuan hartuta.

3. Unibertsitateko ikasketa plan ofizialetako Kanpoko Praktikak edo Practicuma aitortu ahal izango dira, ikasleak egingo duen tituluan eskatzen diren gaitasunekin eta tituluan ezarritako gehieneko kreditu kopuruarekin bat datozen kontuan hartuta.
4. Gradu amaierako lanak, tituluari lotutako gaitasun guztien ebaluaziora bideratuta daudenez, ezin izango dira aitortu.
5. DUk izenpetutako estatuko edo nazioarteko mugikortasun programetan parte hartzen duten ikasleek, ikasketen zati bat beste unibertsitate edo goi mailako hezkuntzako erakunde batzuetan egiteko, dagokien hitzarmen akademikoaren arabera lortuko dute aitortpena, 1393/2007 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.
6. Unibertsitateko kultur, kirol, elkartasun, lankidetzeta eta ikasleen ordezkarietako jardueretan parte hartzeagatik kredituen aitortpen akademikoa, Gradu Ikasketen Araudi Orokorrean ezarritakoaren ildotik, eskatzailea matrikulatutako tituluaren arau akademiko berezietan ezarritakoaren arabera egingo da.

5. 6. artikulua. Eskumena, honela geratu da

1. Errektorea da DUn kredituen aitortpenean eskumena duen agintaria eta, eskuordetuta, Ikasketen Antolamenduko errektoreordea. Aitortpenen kudeaketa akademikoa egitea Unibertsitateko Aitortpen Batzordeari eta Fakultateetako Aitortpen Batzordeei dagokie, zeini bere esparruan.
2. Unibertsitateko Batzordea errektoreak izendatuko du eta, ahal dela, honako hauek izango dira batzordekideak:
 - a. Ikasketen Antolamenduko errektoreordea, edo honek eskuordetutako pertsona. Hau izango da batzordeburua.
 - b. Unibertsitateko izaera eta misio gaietan eskumena duen errektoreordea, edo honek eskuordetutako pertsona.
 - c. Fakultate bakoitzeko irakasle bat.
 - d. Idazkaritza Orokorreko burua. Honek egingo ditu idazkari lanak, hitzarekin baina botorik gabe.
3. Unibertsitateko Batzordearen egitekoak honako hauek izango dira:
 - a) Fakultateetako batzordeen irizpideak koordinatzea, gaitasunetan oinarritutako ikasteko metodologiarekin koherenteak diren irizpide berdintsuak erabil daitezzen bermatzeko.
 - b) Unibertsitateko nahitaezko gaietako irakasgaiak aitortzeko eskabideak ebaztea.
 - c) Fakultateetako batzordeek lehen instantzian emandako ebazpenen aurkako errekursoak ebaztea.
 - d) Fakultateetako batzordeek proposatutako aldaketa eta hobekuntzei buruzko iritzia ematea.
4. Fakultate bakoitzean, dekanok izendatuko du bertan ematen den titulu bakoitzerako Aitortpen Batzordea. Ahal dela, honako hauek izango dira batzordekideak:

- a. Fakultateko graduko ikasketen zuzendaritzaren ardura duen dekanordea edo arduraduna.
 - b. Graduko titulazioko irakaskuntzaren plangintzaren ardura du(t)ena(k): normalean sail edo sail-arloe(ta)ko zuzendaria(k) edo, bestela, graduko koordinatzaileak.
 - c. Fakultatean nazioarteko programen edo ikasleen mugikortasunaren kudeaketaren ardura duena.
 - d. Fakultateko idazkaria, edo idazkariordea. Honek egingo du batzordeko idazkari lana.
5. Fakultateetako aitorten batzordeek, egoki iritziz gero, aholkua eska diezaiekete gaia ematen duten irakasleei, baina irakasle horien iritzia ez da loteslea izango.
6. Fakultateetako aitorten batzordeen egitekoak honako hauek izango dira:
- a) Euren eremuaren barruan aurkeztutako aitorten eskabideei buruzko txostena egitea.
 - b) Ziurtatzea, proba, elkarrizketa edo ebaluatze beste moduren baten bidez, ea ikasleak agiriz egiaztatutako lan edo lanbide esperientzia bat datorren ikasi nahi duen graduan horregatik aitortuko zai(zki)on irakasgaiari/ei dagozkien gaitasunetan lortu beharreko menderatze mailarekin.
 - c) Ikasleek aitortpena eskatzeko behar duten informazioa eskura izan dezaten erraztea.
 - d) Batzordeak egindako aldeko eta kontrako txostenen base dokumentala eratzea eta eguneratuta edukitzea, antzeko irizpideak aplikatzeko. Basean aitortpenaren zehaztasun hauek zehaztuko dira: jatorrizko eta xede irakasgaiak, kredituak, ikasketak, jatorrizko ikasketak zein unibertsitatean eginak diren, eta lan edo lanbide esperientzia onartzeko eta kredituetara ekartzeko erabilitako irizpideak.
 - e) Unibertsitateko Batzordeari laguntzea, bereziki euren lan eremuan beharrezkotzat jotzen dituzten aldaketak eta hobekuntzak proposatuz.

6. 7. artikulua. Eskaera egiteko prozedura, honela geratu da

1. Irakasgai baten aitortpena eskatzeko, aurretiaz irakasgai hori matrikulatu egin behar da.
2. Araudi honen 5.1 artikuluko a) eta b) atalak aplikatuta aitortzen diren kredituak izan ezik, kredituak aitortzeko espedienteak ikasleak eskatuta izapidetuko dira. Horretarako, ikasleak eskabidea aurkeztu beharko du Idazkaritza Orokorrean horretarako ezarri eta argitaratutako epean, aitortzeko modukotzat jotzen duen irakasgaia edo irakasgaiak zehaztuta.
3. Ikasle batek gradu batean sartzeko eskaera egiten badu eta gradu horrek egiten ari zen titulazioa ordezkatu badu eta, beraz, espediente egokitu behar badu, edo DUren barruan titulazio bat utzi eta beste bat hasi nahi badu, edo Espainiako beste unibertsitate batetik espediente lekualdatu behar badu, edo atzerrian hasitako ikasketak baliozkotu behar baditu, sarrera-eskaera horrek kredituak aitortzeko eskaera dakar berekin eta, beraz, ikasleak ez du kredituen aitortpenik eskatu beharko aparte.
4. Halakoetan, espediente egokitu behar dutenen kasuan izan ezik, ikaslea sartzen den mailatik gorako irakasgairen bat aitortzeko modukoa baldin bada, irakasgai

- hori edo horiek matrikulatutakoan eskatu beharko du aitortpena, horretarako ezarritako epearen barruan, eta sarrera prozesuan eman zitzaion ebazpenaren jakinarazpena aurkeztu beharko du.
5. Espainiako unibertsitateetan egindako ikasketetarako, aitorten eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:
 - Egindako ikasketen ziurtagiri akademiko pertsonala, ikasketa horiek DUn egin ez badira, gainditutako gaiak edo irakasgaiak, zein motatakoak diren eta haietan zer kalifikazio lortu den zehaztuta.
 - Aitortzeko eskatzen den jatorrizko irakasgai bakoitza gainditu zen ikasturteko irakaskuntza plana edo programa, jatorrizko ikastegiak zigilatuta, irakasgaiari lotutako gaitasunak, garatutako edukiak, egindako jarduerak, ECTS kreditu kopurua eta ebaluazio sistema zehaztuta.
 6. Atzerrian egindako ikasketetarako,
 - a. Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:
 - Ikasketak egin diren goi mailako hezkuntzako erakundearen izaera ofiziala, edo baliokidea, egiaztatzen duen agiria.
 - Egindako ikasketen maila eta mota egiaztatzen dituen ziurtagiri ofiziala, gainditutako gaiak edo irakasgaiak, zein motatakoak diren eta haietan lortutako kalifikazioak zehaztuta.
 - Egindako ikasketa plana edo gaien taula, titulua lortzeko eskatzen diren irakasgaiekin, jatorrizko ikastegiak emana.
 - Aitortzeko eskatzen den jatorrizko irakasgai bakoitzaren irakaskuntza plana edo programa (gainditu zen ikasturtekoa), jatorrizko ikastegiak zigilatuta, irakasgaiari lotutako gaitasunak, garatutako edukiak, egindako jarduerak eta ECTS kreditu kopurua zehaztuta.
 - b. Atzerriko ikasketei buruzko agiriek ofizialak izan behar dute eta agintari eskudunek eginak. Behar bezala legeztatuta aurkeztu behar dira eta autonomia erkidegoko hizkuntza ofizialetara, ingelesera, frantsesera edo italierara itzulita hizkuntza horietakoren batean egon ezik.
 7. Aitorten eskaera lan edo lanbide esperientzian oinarritzen bada, curriculum vitae-a aurkeztu beharko da, aintzat hartu beharreko merezimendu guztien egiaztagiririk erantsita.
 8. Mugikortasun programetan edo unibertsitate batzuen arteko hezkuntzako lankidetzaren hitzarmenen ondoriozko ikasketetan lortutako kredituak eta fakultate batzuen arteko programa konbinatuetan lortutakoak berez aitortuko dira, ikasleak eskabiderik egin gabe, haien arauetan ezarritakoaren arabera.

7. 8. artikulua. Aitorten eskabideen ebazpena, honela geratu da

1. Oinarrizko prestakuntzako gaiei dagozkien kredituak aitortzen direnean, araudi honen 5.1 artikuluan a) eta b) ataletan ageri diren irizpideak aplikatuta, aitortenaren ebazpenean honako hauek jasoko dira: aitortutako kreditu kopurua, aitorten horren ondorioz amortizatuta geratzen diren oinarrizko prestakuntzako irakasgaiak eta ikasleak egin beharko dituen irakasgaiak, eskatzen diren 60 ECTSak betetzeko.
2. Irakasgai baten edo batzuen aitortpena eskatzen bada aurretik egindako unibertsitate ikasketetan lortutako kredituetan oinarrituta, ebazpenean honako hauek jasoko dira:

- a. Gainditutako irakasgaiaren izena, mota, kreditu kopurua, ikasketak eta unibertsitatea.
 - b. Ebazpena aldekoa bada, aitortutako irakasgaia(k) eta araudi hau aplikatuta dagokion kalifikazioa.
 - c. Ebazpena kontrakoa bada, aitortutako ukatzeko arrazoiak.
2. Irakasgai baten edo batzuen aitortutako eskatzen bada lan edo lanbide esperientzia egiaztatuan oinarrituta, eskabide horren ebazpenean honako hauek jasoko dira: egindako proba edo probak, egiaztatutako gaitasunak eta, ebazpena aldekoa bada, aitortutako kreditu kopurua eta amortizatutako irakasgaiak.
3. Titulua egiaztatzeko txostenean ageri den egokitzapen taulan dauden irakasgaien aitortutako modu automatikoan egingo da, DUko Gradu Ikasketen Araudi Orokorren Lehenengo Xedapen Iragankorrean ezarritakoaren arabera. Dena dela, dagokion Batzordearen oniritzia izan beharko du.
4. Aitortutako eskabideko irakasgaiak aurreko puntuan aipatutakoak ez badira, Idazkaritza Orokorrek dagokion Batzordeari bidaliko dio espedientea eta honek txostena egingo du hamabost eguneko epean.
6. Ebazpena jakinarazi eta hamabost eguneko epean, ikasleak berraztertze eskabide arrazoitua aurkez dezake, beti ere eskaria justifikatzen duten datu berriak emanaz. Ebazpena Unibertsitateko Aitortutako Batzordearena bada, berraztertze eskabidea errektoreari zuzenduko zaio; ebazpena Fakultateko Batzordearena bada, berraztertze eskabidea dekanari zuzenduko zaio. Batean zein bestean, arduradunak Aitortutako Batzordea bilduko du berriro eta honek hamabost eguneko epean ebaztuko du, errekurtsio jarri den egunetik zenbatzen hasita.

8. Azken xedapenak

Lehena. Aldaketa hauek DUAOn argitaratzen direnean sartuko dira indarrean.

Bigarrena. Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak araututako Gradu titulazioetan kredituak aitortzeko eta transferitzeko Arau Akademiko Berezien testu batagina idatzi eta erantsiko da.

ERANSKINA

Zioen azalpena

Kontseilu Akademikoaren abenduaren 18ko 2/2008 Erabakiaren bidez, 1393/2007 Errege Dekretuak araututako Deustuko Unibertsitateko graduako titulazioetarako Ikasketen Araudi Orokorra ezarri zen (errektorearen otsailaren 24ko 4/2009 Aginduaren bidez aldarrikatua). Ikasketen Araudi Orokor horren 10. eta 11. artikuluetan, kredituak aitortzeko eta transferitzeko sistema berriaren oinarriak ezarri ziren, aipatutako Errege Dekretuak ezarritakoaren ildotik. Sistema berri honek lehenengo antolamenduen araberrako titulazioetako egokitzapen eta baliozkotze sistema ordezkatu du.

1393/2007 Errege Dekretu horrek, 6. artikuluan, unibertsitateek kredituak aitortzeko eta transferitzeko sistema eratu eta horren arauak argitaratu behar zituztela ezarri zuen, ikasleen mugikortasuna errazteko.

Agindu hori betetzeko, graduako titulazioetarako Ikasketen Araudi Orokorrean ezarritako irizpideak aintzat hartuta eta Unibertsitateko Estatutu Orokorren esparruan, behar diren izapideak eginda, Ikasketen Antolamenduko errektoreordearen ekimenez, graduako titulazioetan kredituak aitortzeko eta transferitzeko araudia onartu zen. Orain araudi hori aldatu egingo da, uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuak 1393/2007 Errege Dekretuaren arabera antolatutako unibertsitate ikasketa ofizialetako kredituak aitortzeko ezarritako aukera berriak kontuan hartuta, aukera berri horiek aintzat hartu behar baitira gure unibertsitateko graduako ikasketen araudian. Horrenbestez, behar diren aldaketak egin dira Kontseilu Akademikoak martxoaren 25eko 1/2010 Erabakiaren bidez onartutako Kredituak aitortzeko eta transferitzeko Arau Akademiko Berezien artikuluetan.

Bestalde, graduako ikasketen ezarpenean izandako esperientziak artikulatu batzuk zuzendu, beste batzuk zabaldu eta beste batzuk ordezkatu beharra ekarri du.

Hori dela eta, beharrezko izapideak beteta, Ikasketen Antolamenduko errektoreordeak proposatuta, Zuzendaritza Kontseiluaren aldeko irizpena eta Kontseilu Akademikoaren onospena hartuta, honako hau XEDATU DA:

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Aplikazio eremua

Kredituak aitortzeko eta transferitzeko araudi berezi hau Unibertsitatean 1393/2007 Errege Dekretuaren babespean ezarritako graduako titulazio guztietan eta Unibertsitateari atxikitako ikastegietan aplikatuko da, 2009-2010 ikasturteetik aurrera.

II. Kredituen aitortpena

2. artikulua. Definizioa

861/2010 Errege Dekretuak moldatutako 1393/2007 Errege Dekretuaren 6.2 artikuluan ezarri denez, aitortpena zera da: DUK ikasleak Deustuko Unibertsitatean edo beste unibertsitate batean hasitako zein amaitutako unibertsitate-ikasketa ofizialetan zein ez-ofizialetan edo goi mailako beste ikasketa ofizial batzuetan lortutako kredituak onartzea eta aintzat hartzea sartzen den ikasketetako titulua lortzeko.

Era berean, lan edo lanbide esperientzia ere aitortu ahal izango da kredituen bidez, eta kreditu horiek ere hartuko dira aintzat graduako titulua lortzeko, baldin eta esperientzia hori behar bezala egiaztatuta badago eta tituluari dagozkion gaitasunekin zerikusia badu.

3. artikulua. Aitortpenaren ondorioak

1. Aitortpenaren ondorioz, xede titulazioa lortzeko egin eta gainditu beharreko kreditu kopurua aitortutako kreditu kopurua adina gutxitu beharko da, baldin eta aitortutako kreditu kopuru horrek aitortutako irakasgaiari dagozkien kreditu guztiak estaltzen baditu.
2. Aitortpenaren ebazpenean zehatz-mehatz agertuko da zenbat ECTS kreditu eta zein motatakoak aitortu zaizkion ikasleari eta zein irakasgai ez dituen egin beharko, dela haiei dagozkien gaitasunak eta ezaupideak gaindituak dituela egiaztatu duelako, dela oinarritzko prestakuntzako gaietako kredituak aitortu zaizkiolako 1393/2007 Errege Dekretuaren 13. artikulua aplikatuta, 861/2010 Errege Dekretuak xedatutako moduan.
3. Sarrera prozesuko aitortpen ebazpenek dagokien ikasturtean izango dute eragina, irakaskuntzen plangintzaren arabera, aitortutako irakasgaiak ematen diren mailako matrikula egitean, alegia.
4. Aitortutako irakasgaiak halakotzat agertuko dira ikaslearen espedientean, eta araudi honetan ezarritakoa aplikatuz dagokien kalifikazioa izango dute, beharrezkoa bada, eta halaxe agertuko dira Tituluaren Europar Gehigarrian ere.

4. artikulua. Aitortpenerako irizpide orokorrak

1. Aitortpena xede irakasgaiarekin lotutako gaitasunak eta ezaupideak egiaztatzean oinarritzen da, menderatze maila eta kreditu kopurua kontuan hartuta. Jatorritzko eta xede irakasgaien enuntziatua, edukiak eta zabalera antzekoak izatea ez da nahikoa irakasgaia aitortzeko.
2. Aitortpenaren jatorria honakoa izango da: unibertsitateko ikasketa ofizialetan zein ez ofizialetan edo goi mailako bestelako ikasketa ofizialetan gainditutako irakasgaiak edo kredituak edo/eta lan edo lanbide esperientzia egiaztatua. Gradua unibertsitateko ikasketen lehen zikloa denez gero, unibertsitateko ikasketa ofizialetako irakasgaiak aitortu egin daitezke, baita ikasketa horiek eginda lortutako titulua graduako ikasketetarako sarbidea ematen duena bada ere.
3. Aitortpenaren xede unitatea irakasgaia izango da eta, bestela, irakasgaiaren gaiari eta/edo moduluari dagozkion kredituak pilatuko dira.

4. Irakasgairen bat aitortuz gero unibertsitateko ikasketa ofizialetan lortutako kredituak direla eta, irakasgai horren kalifikazioa aitortenaren jatorri den gaian edo irakasgaian lortutako kalifikazioaren parekoa izango da. Lehenagoko ikasketetan egindako gai edo irakasgai batzuen ondorioz, xede titulazioko irakasgai bat, edo batzuk, aitortuz gero, batez besteko ponderatua aterako da, kredituak kontuan hartuta.
5. Aitorpen eskabidearekin batera ikasleak aurkeztutako ziurtagirian, jatorrizko gaiak edo irakasgaiak hitzezko kalifikazioa bakarrik badu, kalifikazio horri dagokion zenbakizko kalifikazio estandarra esleituko zaio, Unibertsitate honetako kalifikazio arauak aplikatuz.
6. Lan edo lanbide esperientzia edo unibertsitateko ikasketa ez ofizialak kontuan hartuta, irakasgairen bat aitortuz gero, irakasgai horrek ez du kalifikaziorik izango eta, ondorioz, dagozkion kredituak ez dira zenbatuko espedientearen baremaziorako. [lehenago 6. puntuaren ordezkoa]
7. Atzerriko unibertsitate ikasketak aitortu ahal izateko, ikasketa horien ofizialtasuna egiaztatu beharko da edo, bestela, ikasketak egindako unibertsitatearen edo goi mailako hezkuntzako erakundearen izaera ofiziala.
8. Beste unibertsitate batzuekin izenpetutako mugikortasuneko edo baterako prestakuntzako hitzarmenen ondorioz ematen diren ikasketetan, aitorpen kontuetarako, hitzarmen horietan ezarritakoa beteko da, non eta ez duen araudi honen xedapenen bat urratzen edo ez doan 1393/2007 Errege Dekretuan ezarritako jarraibideen kontra. Hortaz, mugikortasun programetan egindako kredituen aitortpena graduako tituluaren alde aurretik sinatutako hitzarmenaren arabera egingo da.
9. Ikasleek egin eta gainditutako kredituak behin baino gehiagotan erabili ahal izango dira beste titulazio batzuetako irakasgaiak aitortzeko; baina ikaslearen espedientearen "*aitortu*" gisa ageri direnak, hau da, titulazio horretan aitortu zaizkionak baina egin ez dituenak, ezin izango dira erabili beste aitorpenik egiteko, ezta "*baliozkotuak*" eta "*egokituak*" ere, arrazoi beragatik.
10. Lan edo lanbide esperientzia edo unibertsitateko ikasketa ez ofizialak kontuan hartuta aitortutako kreditu kopurua ezin izango da, oro har, ikasketa plana osatzen duen kreditu kopuruaren %15 baino handiagoa izan. [lehenago 10. puntuaren ordezkoa]
11. Hala ere, ikasleak egingo dituen graduako ikasketek lehenago egindako ikasketa ez ofizialak ordezkatzeko badituzte, kreditu kopuru handiagoa izan daiteke aitortua, beti ere egiaztapen txostenean ezarritakoa goitik behera betez.
12. Titulazio batean aitortutako kredituen kopurua ezin izango da titulua lortzeko eskatzen den kreditu kopuruaren %75 baino handiagoa izan. Salbuespen izango dira titulua egiaztatzeko txostenean ageri diren egokitzapen taulak aplikatuta gertatzen diren egoerak.

13. Lanbide arautuetan jarduteko gaitzen duten titulu ofizialetan, hau da, gobernua titulu horien ikasketa planei baldintza batzuk ezarri dizkienean, automatikoki aitortuko dira arauan definitutako modulu eta gaien kredituak. Modulu edo gai bat osorik gainditu ez bada, aitorpena, gaika edo irakasgaika egingo da, kasuaren arabera, haiei espresuki lotutako gaitasunak eta ezaupideak kontuan hartuta.

5. artikulua. Aitorpenerako irizpide zehatzak

1. Gradu titulu-tako oinarrizko gai-takoak diren irakasgaien aitorpena, 1393/2007 Errege Dekretuaren 13. artikulua betez, 861/2010 Errege Dekretuan ezarritako moduan, irizpide hauen arabera egingo da:
 - a) Ikasleak egingo duen titulua jakintza adar berekoa izanez gero, adar horretako oinarrizko prestakuntzako gai-ei dagozkien 36 kreditu aitortuko dira gutxienez.
 - b) Era berean, ikasleak egingo duen tituluaren jakintza adarrekoak diren oinarrizko prestakuntzako beste gai batzuetan lortutako kredituak ere aitortu ahal izango dira.
 - c) Aurreko bi letretan aurreikusita ez dauden kasuetan, oinarrizko prestakuntzako irakasgaiak aitortu ahal izango dira araudi honetan aitorpenerako ezarritako irizpide orokorren arabera. [lehengo c letraren ordezkoa).
2. Nahitaezko eta hautazko irakasgaiak aitortu ahal izango dira, baldin eta ikasleak antzeko mailako ikasketetan edo gaietan edo lan edo lanbide esperientzia egiaztatuan lortutako gaitasunak eta ezaupideak eta egin nahi duen titulazioko irakasgaietan lortu beharrekoak parekoak badira edo haien zeharkakotasuna kontuan hartuta.
3. Unibertsitateko ikasketa plan ofizialetako Kanpoko Praktikak edo Practicum-a aitortu ahal izango dira, ikasleak egingo duen titulu-an eskatzen diren gaitasunekin eta titulu-an ezarritako gehienezko kreditu kopuruarekin bat datozen kontuan hartuta.
4. Gradu amaierako lanak, tituluari lotutako gaitasun guztien ebaluaziora bideratuta daudenez, ezin izango dira aitortu.
5. DUk izenpetutako estatuko edo nazioarteko mugikortasun programetan parte hartzen duten ikasleek, ikasketen zati bat beste unibertsitate edo goi mailako hezkuntzako erakunde batzuetan egiteko, dagokien hitzarmen akademikoaren arabera lortuko dute aitorpena, 1393/2007 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.
6. Unibertsitateko kultur, kirol, elkartasun, lankidetzeta eta ikasleen ordezkari-tzako jardueretan parte hartzeagatik kredituen aitorpen akademikoa, Gradu-ko Ikasketen Araudi Orokorrean ezarritakoaren ildotik, eskatzailea matrikulatutako tituluaren arau akademiko berezietan ezarritakoaren arabera egingo da.

6. artikulua. Eskumena

1. Errektorea da DUn kredituen aitorpenean eskumena duen agintaria eta, eskuordetuta, Ikasketen Antolamenduko errektoreordea. Aitorpenen kudeaketa akademikoa egitea Unibertsitateko Aitorpen Batzordeari eta Fakultateetako Aitorpen Batzordeei dagokie, zeini bere esparruan.
2. Unibertsitateko Batzordea errektoreak izendatuko du eta, ahal dela, honako hauek izango dira batzordekideak:
 - a. Ikasketen Antolamenduko errektoreordea, edo honek eskuordetutako pertsona. Hau izango da batzordeburua.
 - b. Unibertsitateko izaera eta misio gaietan eskumena duen errektoreordea, edo honek eskuordetutako pertsona.
 - c. Fakultate bakoitzeko irakasle bat.
 - d. Idazkaritza Orokorreko burua. Honek egingo ditu idazkari lanak, hitzarekin baina botorik gabe.
3. Unibertsitateko Batzordearen egitekoak honako hauek izango dira:
 - a. Fakultateetako batzordeen irizpideak koordinatzea, gaitasunetan oinarritutako ikasteko metodologiarekin koherenteak diren irizpide berdintsuak erabil daitezzen bermatzeko.
 - b. Unibertsitateko nahitaezko gaietako irakasgaiak aitortzeko eskabideak ebatzea.
 - c. Fakultateetako batzordeek lehen instantzian emandako ebazpenen aurkako errekurtsuak ebatzea.
 - d. Fakultateetako batzordeek proposatutako aldaketa eta hobekuntzei buruzko iritzia ematea.
4. Fakultate bakoitzean, dekanok izendatuko du bertan ematen den titulu bakoitzerako Aitorpen Batzordea. Ahal dela, honako hauek izango dira batzordekideak:
 - a. Fakultateko graduiko ikasketen zuzendaritzaren ardura duen dekanordea edo arduraduna.
 - b. Graduiko titulazioko irakaskuntzaren plangintzaren ardura du(t)ena(k): normalean sail edo sail-arloe(ta)ko zuzendaria(k) edo, bestela, graduiko koordinatzaileak.
 - c. Fakultatean nazioarteko programen edo ikasleen mugikortasunaren kudeaketaren ardura duena.
 - d. Fakultateko idazkaria, edo idazkariordea. Honek egingo du batzordeko idazkari lana.
5. Fakultateetako aitorpen batzordeek, egoki iritziz gero, aholkua eska diezaiekete gaia ematen duten irakasleei, baina irakasle horien iritzia ez da loteslea izango.
6. Fakultateetako aitorpen batzordeen egitekoak honako hauek izango dira:
 - a. Euren eremuaren barruan aurkeztutako aitorpen eskabideei buruzko txostena egitea.
 - b. Ziurtatzea, proba, elkarrizketa edo ebaluatzeko beste moduren baten bidez, ea ikasleak agiriz egiaztatutako lan edo lanbide esperientzia bat datorren ikasi nahi duen graduan horregatik aitortuko zai(zki)on irakasgaiari/ei dagozkien gaitasunetan lortu beharreko menderatze mailarekin.
 - c. Ikasleek aitorpena eskatzeko behar duten informazioa eskura izan dezaten erraztea.
 - d. Batzordeak egindako aldeko eta kontrako txostenen base dokumentala eratzea eta eguneratuta edukitzea, antzeko irizpideak aplikatzeko. Basean aitorpenaren zehaztasun hauek zehaztuko dira: jatorrizko eta xede irakasgaiak, kredituak,

- ikasketak, jatorrizko ikasketak zein unibertsitateetan eginak diren, eta lan edo lanbide esperientzia onartzeko eta kredituetara ekartzeko erabilitako irizpideak.
- e. Unibertsitateko Batzordeari laguntzea, bereziki euren lan eremuan beharrezkotzat jotzen dituzten aldaketak eta hobekuntzak proposatuz.

7. artikulua. Eskaera egiteko prozedura

1. Irakasgai baten aitortpena eskatzeko, aurretiaz irakasgai hori matrikulatu egin behar da.
2. Araudi honen 5.1 artikuluko a) eta b) atalak aplikatuta aitortzen diren kredituak izan ezik, kredituak aitortzeko espedienteak ikasleak eskatuta izapidetuko dira. Horretarako, ikasleak eskabidea aurkeztu beharko du Idazkaritza Orokorrean horretarako ezarri eta argitaratutako epean, aitortzeko modukotzat jotzen duen irakasgaia edo irakasgaiak zehaztuta.
3. Ikasle batek gradu batean sartzeko eskaera egiten badu eta gradu horrek egiten ari zen titulazioa ordezkatu badu eta, beraz, espedientea egokitu behar badu, edo DUren barruan titulazio bat utzi eta beste bat hasi nahi badu, edo Espainiako beste unibertsitate batetik espedientea lekualdatu behar badu, edo atzerrian hasitako ikasketak baliozkotu behar baditu, sarrera-eskaera horrek kredituak aitortzeko eskaera dakar berekin eta, beraz, ikasleak ez du kredituen aitortpenik eskatu beharko aparte.
4. Halakoetan, espedientea egokitu behar dutenen kasuan izan ezik, ikaslea sartzen den mailatik gorako irakasgairen bat aitortzeko modukoa baldin bada, irakasgai hori edo horiek matrikulatutakoan eskatu beharko du aitortpena, horretarako ezarritako epearen barruan, eta sarrera prozesuan eman zitzaion ebazpenaren jakinarazpena aurkeztu beharko du.
5. Espainiako unibertsitateetan egindako ikasketetarako, aitortpen eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:
 - Egindako ikasketen ziurtagiri akademiko pertsonala, ikasketa horiek DUn egin ez badira, gainditutako gaiak edo irakasgaiak, zein motatakoak diren eta haietan zer kalifikazio lortu den zehaztuta.
 - Aitortzeko eskatzen den jatorrizko irakasgai bakoitza gainditu zen ikasturteko irakaskuntza plana edo programa, jatorrizko ikastegiak zigilatuta, irakasgaiari lotutako gaitasunak, garatutako edukiak, egindako jarduerak, ECTS kreditu kopurua eta ebaluazio sistema zehaztuta.
6. Atzerrian egindako ikasketetarako,
 - a) Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:
 - Ikasketak egin diren goi mailako hezkuntzako erakundearen izaera ofiziala, edo baliokidea, egiaztatzen duen agiria.
 - Egindako ikasketen maila eta mota egiaztatzen dituen ziurtagiri ofiziala, gainditutako gaiak edo irakasgaiak, zein motatakoak diren eta haietan lortutako kalifikazioak zehaztuta.
 - Egindako ikasketa plana edo gaien taula, titulua lortzeko eskatzen diren irakasgaiekin, jatorrizko ikastegiak emana.
 - Aitortzeko eskatzen den jatorrizko irakasgai bakoitzaren irakaskuntza plana edo programa (gainditu zen ikasturtekoa), jatorrizko ikastegiak zigilatuta, irakasgaiari lotutako gaitasunak, garatutako edukiak, egindako jarduerak eta ECTS kreditu kopurua zehaztuta.

- b) Atzerriko ikasketei buruzko agiriei ofizialak izan behar dute eta agintari eskudunek eginak. Behar bezala legeztatuta aurkeztu behar dira eta autonomia erkidegoko hizkuntza ofizialetara, ingelesera, frantsesera edo italierara itzulita hizkuntza horietakoren batean egon ezik.
7. Aitorpen eskaera lan edo lanbide esperientzian oinarritzen bada, *Curriculum Vitae*a aurkeztu beharko da, aintzat hartu beharreko merezimendu guztien egiaztagiriak erantsita.
 8. Mugikortasun programetan edo unibertsitate batzuen arteko hezkuntzako lankidetzaren hitzarmenen ondoriozko ikasketetan lortutako kredituak eta fakultate batzuen arteko programa konbinatuetan lortutakoak berez aitortuko dira, ikasleak eskabiderik egin gabe, haien arauetan ezarritakoaren arabera.

8. artikulua. Aitorpen eskabideen ebazpena

1. Oinarrizko prestakuntzako gaiei dagozkien kredituak aitortzen direnean, araudi honen 5.1 artikuluan a) eta b) ataletan ageri diren irizpideak aplikatuta, aitorpenaren ebazpenean honako hauek jasoko dira: aitortutako kreditu kopurua, aitorpen horren ondorioz amortizatuta geratzen diren oinarrizko prestakuntzako irakasgaiak eta ikasleak egin beharko dituen irakasgaiak, eskatzen diren 60 ECTSak betetzeko.
2. Irakasgai baten edo batzuen aitorpena eskatzen bada aurretik egindako unibertsitate ikasketetan lortutako kredituetan oinarrituta, ebazpenean honako hauek jasoko dira:
 - a) Gainditutako irakasgaiaren izena, mota, kreditu kopurua, ikasketak eta unibertsitatea.
 - b) Ebazpena aldekoa bada, aitortutako irakasgai(k) eta araudi hau aplikatuta dagokion kalifikazioa.
 - c) Ebazpena kontrakoa bada, aitorpena ukatzeko arrazoiak.
3. Irakasgai baten edo batzuen aitorpena eskatzen bada lan edo lanbide esperientzia egiaztatuan oinarrituta, eskabide horren ebazpenean honako hauek jasoko dira: egindako proba edo probak, egiaztatutako gaitasunak eta, ebazpena aldekoa bada, aitortutako kreditu kopurua eta amortizatutako irakasgaiak.
4. Titulua egiaztatzeko txostenean ageri den egokitzapen taulan dauden irakasgaien aitorpena modu automatikoan egingo da, DUko Gradu Ikasketen Araudi Orokorren Lehenengo Xedapen Iragankorrean ezarritakoaren arabera. Dena dela, dagokion Batzordearen oniritzia izan beharko du.
5. Aitorpen eskabideko irakasgaiak aurreko puntuan aipatutakoak ez badira, Idazkaritza Orokorrek dagokion Batzordeari bidaliko dio espediente eta honek txostena egingo du hamabost eguneko epean.
6. Ebazpena jakinarazi eta hamabost eguneko epean, ikasleak berraztertze eskabide arrazoitua aurkez dezake, beti ere eskaria justifikatzen duten datu berriak emanaz. Ebazpena Unibertsitateko Aitorpen Batzordearena bada, berraztertze eskabidea errektoreari zuzenduko zaio; ebazpena Fakultateko Batzordearena bada, berraztertze eskabidea dekanari zuzenduko zaio. Batean zein bestean, arduradunak Aitorpen Batzordea bilduko du berriro eta honek hamabost eguneko epean ebatziko du, errekurtsua jarri den egunetik zenbatzen hasita.

9. artikulua. Aitorpen tasa

1. Unibertsitateko zuzendaritzak urtean-urtean ezarriko du aitortutako irakasgaien kredituengatik ordaindu beharreko tasa.
2. Aitorpen tasa irakasgaiaren matrikula egindakoan ordainduko da ordainketa bakar batean.
3. Titulua egiaztatzeko txostenean graduako titulura egokitzeko ageri den taula aplikatuz aitortutako kredituak aitorpen tasatik salbuetsita egongo dira, baita sartzeko prozesuan aitortutako kredituak ere (atzerriko ikasketen baliozkotze partziala eta lekualdaketak).

III. Kredituen transferentzia

10. artikulua. Definizioa

1393/2007 Errege Dekretuaren 6.2 artikuluan ezarritakoaren eta Graduoko Ikasketen Araudi Orokorraren 10.2 artikuluan jasotakoaren arabera kredituak transferitzea zera da: ikasle batek egindako ikasketen agiri akademiko ofizialetan lehenago Deustuko Unibertsitatean edo beste unibertsitate batean titulu ofizialik lortu gabe egindako ikasketa ofizialetan lortutako kreditu guztiak jasotzea.

11. artikulua. Transferentziaren ondorioak

1. Graduoko titulazioetako kredituen transferentzian jatorrizko ikasketen informazio hau jasoko da: jatorrizko unibertsitatea(k), ikasketa ofizialak eta dagokien jakintza adarra, transferitutako gai edo irakasgaien izena, kreditu kopurua, lortutako kalifikazioa eta erabilitako deialdi kopurua, ziurtagirian jasota badago.
2. Lehenagoko Errege Dekretuek araututako titulazioetako kredituen transferentzian, egindako ikasketen ziurtagiri akademiko ofizialean ageri diren informazioak jasoko dira; eta atzerriko unibertsitateetan egindako titulazioetako kredituen transferentzian, agintari eskudunak egindako ziurtagiri ofizialean ageri direnak.
3. Transferitutako kredituak ikaslearen ikasketa-espeditentean jasoko dira eta Tituluaren Europar Gehigarrian ere agertuko dira.
4. Graduoko ikasketetan sartzean irekitako ikasketa-espeditetik kanpo, transferitutako kredituak ez dira beste inongo agiritan ziurtatuko.

12. artikulua. Prozedura

Kredituen transferentzia ofizioz egingo da behin DUk lehenago egindako ikasketen ziurtagiri akademiko ofiziala eskuratuta edo, atzerriko ikasketak izanez gero, agintari eskudunak egindako ziurtagiri ofiziala eskuratuta.

Xedapen iragankorra

1497/1987 Errege Dekretuak araututako ikasketetarako, indarrean jarraituko dute egokitzapenerako, irakasgaiak baliozkotzeko eta aukera askeko kredituak aitortzeko irizpideek eta prozedurek, aplikatzekoa zaien araudiaren arabera.

Azken xedapenak

Lehena: Egoera bereziak

Aurreko artikuluetan aurreikusi ez diren egoera bereziak idazkari nagusiak ebatziko ditu (eta, Donostiako campusean, eskuordetuta, idazkariordeak), unibertsitateko arauen barruan, interesdunak agiriz hornitutako eskabide arrazoitua aurkeztu ondoren.